

---

# KANALAK

Erabakigarria da bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko. Gure ustez, enpresarako kanalik egokiena elkartutako kanalen bidezko jarduerak izango ziren, hau da, gure produktuak salduko dituzten denda elkartuen bidez. Gure produktua osasunaren munduarekin erlazio estua duten elkarten edo enpresen bidez (farmazietan, osasun zentroetan...) eskeiniko genuke.

.....

Bestalde, kanal zuzen bat eskeiniko genuke salerosketak gauzatzeko gure produktu edo zerbitzua online salduko dugu, gure webgunearen bidez(<https://hernandezandoni.wixsite.com/healthwristband>).

Web orrialdea oso intuitiboa da eta bere funtzionamendua oso xumea da. Orrialdean sartzekoan, atal batzuk bereizten dira ( Inicio, Proiektua eta More) eta More sakatu behar dute. Hor bi azpiatal agertuko dira: -GU: Gure taldeari buruzko informazioa  
-ESKATU: Atal honetan, gure bezeroek pultsera erosteko aukera izango dute. Erosketa prozesuan hainbat elementu hautatu beharko dituzte: Diseinua, kolorea, hizkuntza... Web orrialdea eraikuntza-lanetan dabil eta azkeneko formatua aurkezteko denbora beharko genuke.

Kanalak aparte, gure irismena handitzeko iragarki kanpainak antolatuko genituzke, hori lortzeko osasun zentroetan hainbat motatako argibideak eta informazio guneak antolatuko genituzke.

